

MUTILOAKO UDALA

2017ko URRIAK 4ko OHIKO BILKURA

LEKUA: Mutiloako Udaletxeko Batzar Aretoa

DATA: Bi Mila eta hamazazpiko urriak lau.

ALKATE-LEHENDAKARIA: Iñaki Ugalde Alustiza.

BERTARATUTAKO ZINEGOTZIAK:

Jule Aranburu Mariezkurrena.

Asier Aguirre Murguiondo.

Xabier Aranburu Altuna.

Ion Mujika Perez.

EZ BERTARATUTAKO ZINEGOTZIAK:

Julen Zabala Garcia.

Erkuden Aguirre Arruabarrena.

IDAZKARIA:

Iñaki Alonso Antolín.

BATZARRA: Ohikoa

DEIALDIA: Lehenengoa

HASIERA ORDUA: Arratsaldeko zazpiak.

AMAIERA ORDUA: Arratsaldeko zazpiak eta hoge minutu.

1.- Aurreko aktaren onespina.

Lehenik, eta aurreko Bilkurako akta irakurri ondoren, 2017-07-20 ohikoa aho batez onartzen da.

2.- Alkatzaren Ebazpena.

Jarraian Idazkariak, aurreko ohiko Bilkuraz geroztik egon diren Alkatzaren Ebazpenen berri ematen du. Honakoak dira:


* 2017ko maiatzaren 10ean Lierniko udal-errepidean gertatutako istripuan udalaren ardura onartuz.

* Foru Aldundiko erosketa zentralaren bidez argindarraren kontratazio espedienteari atxikituz.

3.- Fakturen onarpena.


Jarraian faktura eta dirulaguntza hauek onesten dira:

ZKIA	KONZEPTU	ZENBATEKOA
1	AXIER AGIRRE: JUBILATU EGUNEKO GASTUAK	235,09



MUTILOAKO UDALA

2	ALKATEA: JUBILATU EGUNEKO GASTUAK	335,39
3	JOSE M. SORALUZE: JUBILATU EGUNEKO GASTUAK	177,01
4	ASCENSORES MUGUERZA: IGOGAILU MANTENIMENTUA	892,59
5	TXERRI GORRI ELKARTEA: EMANDAKO ZERBITZUAK	625,20
6	BULEGOAK: FOTOKOPIAK	84,91
7	G.U.K.: UR KONTSUMOA	101,03
8	HITZARO ELKARTEA: LUDOTEKAKO ZERBITZ 2. HIRU.	1902,45
9	GOIERRIKO HITZA: DIRULAGUNTZA 3€/BIZ.	765
10	IZFE: KOSTO INFORMATIKOAK	36,3
11	BERRI LANTEGIA: MATERIALAK	81
12	ESMERALDA: KOMUNEKO PAPERA	82,47
13	GOIMEN: BIDE DESBROZAKETA	698,78
14	ILARKI: ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA UZTAILA	1398,4
15	ANTICIMEX: DESRATIZAZIOA	396,55
16	IZFE: KOSTO INFORMATIKOAK 3. HIRUHILABETEA	1.394,10
17	JAM ESPRESIO; TRIKITIXA SAIOA	600
18	MUTILOAKO OSTATUA: EMANDAKO ZERBITZUAK	115,3
19	CUALITIS: LAN PREBENTZIOA	323,44
20	ILARKI: ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ABUZTUA	1619,2
21	VENTANAS LIDERVERN: HAURRESKOLAKO LAHIOAK	6078,82
22	ARTETXE: ERROTA ONDOAN EGINDAKO LANAK	7151,1
23	ARTETXE: LIERNIKO PISTA ASFALTATU	9781,88
24	DUCAL: GALDARAREN MANTENIMENTUA	122,21
25	CORREOS: POSTA KUOTAK ABUZTUA	6,6
26	TOLOSAKO HILTEGIA: EKARPENEA	136
27	BULEGOAK: FOTOKOPIAK	115,24
28	ECOINGENIA: AHOLKULARITZA TEKNIKOA	484
29	IZAL: OSTATUREN MARGOKETA	2764,85
30	BERRI LANTEGIA: MATERIALAK	39
31	EUSKAL EDITOREA: BERRIA HARPIDETZA	106,5
32	SECURITAS DIRECT: OSTATUKO KUOTAK	348,35
33	MATTIN ELEKTR.: PLAZAKO FAROLA	1450,44
34	ITZIAR URRETAVIZCAYA: OSTATUKO TRESNERIA	4040,40



MUTILOA UDALA

4.- Bake epailea izendapenak eta oinarriak.

Botere Judizialeko Lege Organikoaren 101 eta 102 artikuluetan eta bake epaileei buruzko ekainaren 7ko 3/1995 Erregelamenduko 4 eta 5.1 artikuluetan bake epaileei buruz ezarritakoaren arabera, Udalbatzarrari dagokio udalerrri honetako bake epailea eta bere ordezkoa aukeratzea.

Hori dela eta, Osoko Udalbatza honek bake epailea eta ordezkoa aukeratzeko prozesuaren oinarriak eta deialdia onartu zituen. Honenbestez, bi pertsona izena eman dute epaileren postua betetzeko: José Antonio Galdos eta Ana Belén Insausti Irastorza.

Hau ikusita, Udal honek aho batez onartzen du proposamen hau:

Jose Antonio Galdos Elgueta bake epailea izendatzea.
Ana Belén Insausti Irastorza bake epailearen ordekoa izendatzea.

5.- Ordenantza Fiskalak 2018 urterako.

Ondoren Osoko Bilkurari jakin erazten zaio 2018ko Ordenantza fiskalen tarifen aldaketan akordioaren proposamena. Halaber, Idazkari-Kontuhartzailearen txostena ere. Akordio honen proposamena honako hau da:

Ondoko Zerga, Tasen kuotak aldatu, 2018ko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginez, honako hauek direlarik:


- Zaborrak etxez-etxe biltzeagatiko tasa:

Etxebizitzak.....	140 €.
Tabernak eta Jatetxeak.....	440 €.
Elkarte eta Nekazal Turismoak.....	219 €.

6.- Izenpearekin lankidetzaren hitzarmenaren onarpena.

Lineako ingurunean konfiantzazko giroa sortzea funtsezkoa da ekonomia eta gizartea garatzeko. Mesfidantzak (zehazki, antzemandako segurtasun juridikorik ezaren ondoriozkoak) zalantzan jarrarazten ditu kontsumitzaileak, enpresak eta administrazio publikoak bide elektronikoaren bitartez transakzioak egiteko eta zerbitzu berriak bereganatzeko garaian.

Lehenengoa kontuan hartuzkoa, 910/2014 Araudia (EB), Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2014ko uztailaren 23koa, barne-merkatuko identifikazio elektronikoari eta transakzio elektronikoetarako konfiantzazko zerbitzuei



MUTILOAKO UDALA

buruzkoa, eta 1999/93/EE Zuzentaraua indargabetzen duena._ Zalantzarik gabe, lehen kontuan hartuzko horrek leialki jasotzen du Europako barne-merkatuaren egoera sozioekonomikoa. Egungo gizartea gizarte heldua da, herritarren, enpresen eta administrazio publikoen artean elkarreragin elektronikoak lortzeko gai izango den merkatu digital bakarria sortzeko prestatua; gizarte hau gauza da lineako zerbitzuetan eta negozio elektronikoetan eraginkortasun handienera iristeko; eta, azken batean, sozietate honek erabateko konfiantza du merkatu digital bakarrean.

Esparru arauemaile berri horrek erabateko garrantzia ematen dio, identifikazio eta autentifikazio elektronikoaren segurtasunari ez ezik, elkarreragin garrantzuenari ere; halakotzat ulertuta informazio sistemak eta horiek eusten dituzten prozedurek duten ahalmena datuak partekatzeko, elkar ezagutzeko eta informazio- eta ezagutza-trukea fidagarritasunez eta segurtasunez ahalbidetzeko. Araudiaren xede dira, era berean, konfiantzazko zerbitzuak (halakotzat ulertuta sinadura elektronikoak, zigilu elektronikoak, denbora-zigiluak, entrega-zerbitzuak edo webguneen ziurtagiriak sortu, egiaztatu eta baliozkotzea), lineako ingurunean konfiantza eta segurtasun juridikoa sortzen laguntzen duten heinean. Konfiantzazko zerbitzu kualifikatuaren eta konfiantzazko zerbitzuen emaile kualifikatuaren kontzeptuak sartuta, legegilearen asmoa da herritarrengan konfiantza areagotzea, zerbitzu edo produktu kualifikatuaren segurtasun maila handia ziurtatuko duten eskakizunak eta betebeharrak zein diren adieraztearren.

Esparru horretan Izenpek sortzen dituen identifikazio eta sinadura elektronikoko bitartekoez harpidedunei eta, hala badagokio, gakoaren edukizailerik ere aukera ematen diete modu elektronikoan harremanetan jartzeko administrazio publikoekin, erakunde erabiltzaileekin eta haiek erabiltzea onartu duten instituzio publiko eta pribatuekin, baita azken horien artean ere. Izenpek, ziurtagirietan oinarritutako identifikazio- eta sinadura-bitartekoez gainera, baditu ziurtagirietan oinarritu gabeko identifikazio-tresnak.


Mutiloako Udalak interesdunen identifikazio eta sinadura elektronikoko sistematzat onartzen ditu bai ziurtagirietan oinarritutako sistemak, bai beste edozein sistema.

Ondorioz, helburu izanik interesdunei aukera ematea Izenpek jaulkitako bitarteko elektronikoak erabiltzeko, bi aldeek interesa dute jarraian eranstean den lankidetzaren hitzarmenean agertzen diren klausulen arabera lankidetzan aritzeko.

Hau guztia kontutan hartuta Osoko Bilkura honek aho batez onartzen du:

Lehenengoa.- Mutiloako Udala eta Izenpe S.A.aren arteko (lankidetzan aritzea identifikazio eta sinadurako bitarteko elektronikoak jaulkitzen, erregistro erakunde gisa) hitzarmena onartzea.

Bigarrena.- Alkateari ahalmena ematea aipatu hitzarmena eta hori egikaritzeko beharrezkoak diren dokumentu guztiak sinatzeko.



MUTILOAKO UDALA

Hirugarrena.- Akordio hau jakinaraztea.

7.- Pilotalekuko komunak eta aldagelak eraberritzeko esleipena.

Jarraian Alkateak hitza hartzen du adierateko pilotalekuko komunak, dutxak eta aldagelak eraberritzeko hiru aurrekontu eskatu ditugula: "Iparragirre Eraikuntza lanak S.L.", "Elkar Eraikuntzak S.L." eta "Grupo Goiur" enpresei. Hirutatik merkeena "Grupo Goiur"ek aurkeztutakoa da. 21.607,86 €tan gei B.E.Z.a, hain zuzen ere.

Hau guztia kontutan hartuta eta kontratu txikia izanik obra hau "Grupo Goiur" enpresari esleitzea aho batez onartzen da.

8.- Zaborra organikoaren edukiontziak jartzeko proposamena.

Segidan Alkateak proposatzen du zaborra organikoa biltzeko sistema aldatzea eta edukiontzi marroiak jarri Mutiloako udalerrian. Aldi berean Sasietari aldaketa honen berri ematea eta edukiontziak eskatzea.

Proposamen hau eztabaidatu ondoren aho batez onartzen da.

9.- Galde-erreguak.

Jule Aranburu zinegotziak galdetzen du ea aukerarik dagoen Osoko Bilkuratako aktak eta Herri Batzarretan hartzen diren akordioak Mutiloako udaleko web orrian argitaratzeko. Lan hori berak egingo duela aipatzen du. Proposamen hau onartzen da aho batez.

Eztabaidatzeko gai gehiago ez dagoenez, Bilkura amaitutzat ematen da Arratsaldeko zazpiak eta hogeita minutu direnean eta horren sendespena, nik, Idazkariak egiten dut.